2003
EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO
Turismo Sailordetza
Viceconsejería de Turismo
n.º 12

# Euskal Turismoaren Txostena
# Informe del Turismo Vasco

## Bisitari atzerritarrak Euskal Herrian
## FRONTUR 2002

## Los visitantes extranjeros en el País Vasco
## FRONTUR 2002



© "Argazki" Eusko Jaurlaritza • Gobierno Vasco / Mikel Arrazola.

MERKATUAREN AZTERKETA | ANÁLISIS DEL MERCADO

Aurten ere, laugarren urtez jarraian, Mugarteko Turismo Mugimenduak (FRONTUR) txostena landu du Turismo Azterlanen Institutuak; bertan islatu dira 2002. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan izandako turismo-mugimenduen azterketaren emaitzak.

*Por cuarto año consecutivo se presentan en esta colección los resultados para el año 2002 obtenidos de la explotación específica para la Comunidad Autónoma Vasca de la estadística continua de Movimientos Turísticos en Fronteras (FRONTUR) elaborada por el Instituto de Estudios Turísticos.*

## FRONTUR operazioa

## *La operación FRONTUR*

Orain aurkezten dugun txostenean barne hartutako informazio guztia eta aurreko urteetan lortutakoa (2001, 2000, 1999 eta 1998) batera hartuta oso erabilgarria da Euskal Herria aukeratzen duten turista atzerritarrek egiten duten eskaria ezagutzeko.

Ezin eskertu gabe utzi Turismo Azterlanen Institutuak, aurten ere, eskainitako lankidetza; ildo horretan, Turismo Azterlanen Institutuak eta Eusko Jaurlaritzako Industria eta Turismo Sailak Lankidetza Hitzarmena sinatu dute eta, horri esker, turismo-esparruari buruz nazio-mailan dagoen estatistikako datu-baserik handienaz baliatuz makina bat fitxategi kontsultatu dira.

*La información contenida en este informe relativa al año 2002 se viene a sumar a la ya disponible de los años 2001, 2000, 1999 y 1998 para dibujar una imagen precisa de los rasgos estructurales básicos que definen el comportamiento de la demanda turística extranjera con destino al País Vasco al margen de la coyuntura concreta de un año.*

*Es necesario, agradecer un año más la colaboración prestada por el Instituto de Estudios Turísticos en el marco del Convenio de Colaboración suscrito entre el propio Instituto y el Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, en virtud del cual ha sido posible acceder a los ficheros de base de una de las estadísticas más robustas del panorama estadístico nacional en el ámbito del turismo.*



**Fitxa teknikoa:**

Urteko hilabete guztietan eta muga guztietatik Espainiara iristen diren turismo-fluxuak neurtzeko oinarrizko iturri ofizial bihurtu da FRONTUR estatistika. Etengabe berritzen da bertako informazioa eta 2001-2004 Estatistika Plan Nazionalean barne hartuta dago, 348. zenbakiarekin.
Honako argitalpen honetan agertzen diren taulak osatzeko erabili den informazio guztia Espainiara iritsi eta Euskal Herria airez edo errepidez bisitatu zuten bisitariei egindako inkestetan oinarrituta landu da. Xede horrekin, 8.139 inkesta egin dira.

***Ficha técnica:***

*La estadística de FRONTUR es la fuente oficial básica para la medición de los flujos turísticos que llegan a España mes a mes por las distintas fronteras. Tiene carácter continuo y forma parte del Plan Estadístico Nacional 2001-2004 con el N.º 348.*
*La información utilizada para la realización de las tablas que se presentan en esta publicación procede de las encuestas realizadas a los viajeros en las entradas a España que visitaron el País Vasco por aeropuerto y carretera. Para ello se han realizado un total de 8.139 encuestas.*

# Atzerrian bizi eta Euskal Herria aukeratu duten bisitarien tipologia

## *Tipología de visitantes residentes en el extranjero con destino en el País Vasco*

Euskal Herria xede duten bisitari-mota desberdinak. 2000-2002 urte arteko bilakaera
*Tipo de visitantes con destino en el País Vasco. Evolución anual 2000 - 2002*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

2002. urtean 7,2 milioi bisitari atzerritar etorri ziren Euskal Herrira, hau da, iaz baino %3,4 gehiago, gutxi gorabehera. Horietatik 6,4 milioi, alegia hamarretik bederatzi inguru, txangozaleak edo eguna pasatzera etorritako bisitariak ziren; 879.000 izan ziren Euskal Herrian gutxienez gau bat pasa zuten turistak.

Azken urtean bisitari atzerritarren fluxuak gorakada handia izan du (gogoan izan 237.000 bisitari gehiago etorri direla aurten); zentzu horretan, Euskal Herrira etorritako txangozale-kopuruak gora egin du nabarmenki, bai eta turista-kopuruak ere. Txangozaleei dagokienez, %87,9koa izan da Euskal Herrira egindako sarreren pisua, %1,5ekoa izan delarik urte arteko hazkundea (93.000 txangozale gehiago). Turisten kasuan, nahiz eta pisu txikiagoa duen taldea izan (%12,1), emaitza bikainak lortu dira halaber, eta %19,7ko gorakada ezagutu da (192.000 turista gehiago). Argi dago Euskal Herriak egiten duen eskaintzan pisu handia dutela txangozale atzerritarren mugimenduek, eta horrek argi eta garbi adierazten du Euskal Herria eta Frantziaren mugan dauden lurrak harreman handiko lurrak direla; eta horrekin zera esan nahi da: maila profesionalean eta maila pertsonalean oso lotuta geratzen direla. Horrez gain, Euskal Herriak turismoa egiteko leku bezala berezkoa duen erakargarritasuna dugu bisitariak erakartzeko beste arrazoi bat.

*Durante el año 2002 llegaron al País Vasco un total de 7,2 millones de visitantes procedentes del extranjero, aproximadamente un 3,4% más que el año anterior. De ellos 6,4 millones, aproximadamente nueve de cada diez, fueron excursionistas o visitantes de día; los 879.000 restantes fueron turistas que realizaron al menos una pernoctación en territorio vasco.*

*El buen resultado observado en los flujos de visitantes extranjeros en el último año, con un total de 237.000 visitantes más que el año anterior, responde al crecimiento demostrado tanto por los excursionistas, que con un peso en el conjunto de llegadas del año del 87,9% registraron un crecimiento en términos interanuales del 1,5% (93.000 excursionistas más), como por los turistas que con un peso mucho menor (12,1%) también registraron un excelente comportamiento con un aumento del 19,7% (192.000 turistas más). El enorme peso que año tras año tiene en nuestra comunidad el excursionismo extranjero es sin lugar a dudas uno de los rasgos más significativos de nuestra demanda turística, reflejo por un lado del enorme grado de interrelación existente entre los dos lados de la frontera vasco-francesa tanto a nivel profesional como en el ámbito de lo personal y afectivo, y por el otro de su enorme atractivo turístico.*

Euskal Herria aukeratu duten bisitari-motak. Estatuarekin alderatuta. Estatua - Euskal Autonomia Erkidegoa 2000-2002 alderatuta
*Tipo de visitantes con destino en el País Vasco. Comparación Estado - C.A. País Vasco 2000 – 2002*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Zeharo desberdinak dira Euskal Herrira iritsitako bisitarien egitura eta Estatura iritsitakoena. Horrela, Estatuan urtean izandako bisita guztien artetik %34 izan dira txangozale atzerritarrek egindako sarrerak. Euskal Herrian, ordea, egoera erabat alderantzizkoa da eta turismoa bera baldintzatzen duen fenomeno izatera pasa dira txangozaleen fluxua.

*La estructura de los visitantes extranjeros recibidos en el País Vasco es completamente distinta a la observada en el conjunto nacional. Así, mientras en el resto del Estado las llegadas de excursionistas extranjeros representan aproximadamente un 34% del total de llegadas de visitantes del año, en el País Vasco las proporciones se invierten y el fenómeno turístico pasa a ser considerado un fenómeno estrechamente condicionado por la evolución de los flujos de excursionistas.*





Euskal Herrira iritsitako txangozale atzerritar gehienak errepidez iritsi dira, Frantziatik asko eta asko (bien arteko hurbiltasunaz baliatuz). Oso gutxi dira beste nazionalitate geografiko bat eduki eta Euskal Herrira iristeko Frantzia aukeratzen duten bisitariak. Bestalde, oso txangozale gutxik aukeratzen du hegazkina Euskal Herrira iristeko. 2002. urtean ere turista gehienak (%75) errepidez iritsi dira Euskal Herrira.

*Los excursionistas extranjeros con destino al País Vasco llegan mayoritariamente por carretera y procedentes de Francia, como consecuencia de su proximidad. El peso de otras nacionalidades geográficamente más distantes por esta vía de acceso resulta muy minoritario. Por su parte, las llegadas de excursionistas por aeropuerto son prácticamente insignificantes. La carretera es también la principal vía de acceso (75%) elegida por los turistas con destino al País Vasco en 2002.*

Euskal Herria aukeratu duten bisitari-motak, erabilitako garraio-motaren arabera. 2000-2002 urte arteko bilakaera
*Tipo de visitantes con destino en el País Vasco por modo de transporte. Evolución anual 2000 - 2002*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

# Euskal Herria aukeratu duten turistak

## *Turistas con destino en el País Vasco*

Urte hasierako hilabeteetan egoera berezia bizi zuen turismoak izan ere, irailaren 11ko atentatuek eragin handia izan zuten sektorean. Hala ere, pixkanaka lortu da turismoa berriro normaltasunera ekartzea. Pixkanaka diogu, zaila izan baita garraio-konpainiek izandako zailtasunak gainditzea eta munduko herrialde guztiak bisitatzeko segurtasuna lortzea. Hortaz, aipatu guztia kontuan hartu beharko litzateke 2002ko turismo-fluxuen bilakaera aztertzeko orduan.

Euskal Herria aukeratu duten turisten kasuan, urte osoan turistek izandako portaera bikaina bereziki azpimarragarria da. Hala ere, Euskal Herria nazioartean ez da bisitatzeko gehiegi aukeratzen den herrialdea eta hori ulertzeko kontuan hartu behar da alde batetik, Euskal Herrira lehorrez iristen diren bisitariek pisu erlatibo handia dutela eta, bestetik, urruneko merkatuetako bisitari gutxi etorri dela Euskal Herrira betidanik.

*Una vez superados los primeros meses del año, aún marcados en el contexto internacional por los atentados del 11-S, la actividad turística ha recobrado lentamente rasgos de normalidad en un marco salpicado de conflictos y dificultades para compañías de transporte y destinos de todas partes del mundo. Este contexto debe tenerse presente a la hora de analizar la evolución de los flujos turísticos a lo largo de 2002.*

*Por lo que respecta a las llegadas de turistas con destino al País Vasco es necesario destacar el buen comportamiento que han demostrado a lo largo de todo el año. La mayor resistencia ante la crisis del País Vasco como destino turístico internacional se explica, por un lado, por el mayor peso relativo que tienen en esta Comunidad las llegadas de turistas por vía terrestre, y por el otro, la tradicional menor presencia relativa de turistas procedentes de mercados lejanos.*



## Garraiobidea

## *Modo de transporte*

Euskal Herrira iritsitako bisitariek erabilitako sarbidea alde batera utzita zera esan daiteke: Euskal Herrira iristen den turismo-eskariaren portaera oso lotuta dago bidaiatzeko aukeratutako urteko garaiarekin. Oporrak izan ohi dira Euskal Herrira etortzeko arrazoia. Esandakoa baieztatu besterik ez dugu egingo errepidez iristen diren bisitarien portaera aztertuz gero; abuztua izan ohi da errepidez sarrera gehien egiten den hilabetea, hots, urtean izaten diren lau sarreretatik bat abuztuan egiten da. Are nabarmenagoa da abuztuaren eta urtarrilaren eta otsailaren arteko aldea ikusita.

*Independientemente de la vía de acceso, el perfil de la curva de entrada de turistas del año pone de manifiesto el marcado carácter estacional que caracteriza el comportamiento de la demanda turística, eminentemente de tipo vacacional, que llega al País Vasco. Esta estacionalidad, mucho más acusada en las llegadas por carretera que en las de aeropuerto, marca en el caso de la vía terrestre su máximo del año en el mes de agosto, en el que se producen casi una de cada cuatro entradas de turistas del año y en el que se llegan a multiplicar por ocho las entradas de turistas de los meses de menor intensidad viajera del año: enero y febrero.*

Euskal Herria aukeratu duten turistak, garraiobidearen arabera. 2000-2002 hileroko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por modo de transporte. Evolución mensual 2000 - 2002*

| | | Guztira / *Total* | Sarbidea / *Vía de acceso* | |
|---|---|---|---|---|
| | | | Errepidea / *Carretera* | Aireportua / *Aeropuerto* |
| 2000 | **Guztira / *Total*** | **6.049.791** | **6.048.062** | **1.729** |
| | Urtarrila/*Enero* | 363.528 | 363.251 | 277 |
| | Otsaila/*Febrero* | 369.596 | 369.325 | 271 |
| | Martxoa/*Marzo* | 400.441 | 400.385 | 56 |
| | Apirila/*Abril* | 536.331 | 536.173 | 158 |
| | Maiatza/*Mayo* | 489.003 | 488.927 | 76 |
| | Ekaina/*Junio* | 524.165 | 524.056 | 109 |
| | Uztaila/*Julio* | 716.972 | 716.972 | |
| | Abuztua/*Agosto* | 831.065 | 830.625 | 440 |
| | Iraila/*Septiembre* | 495.475 | 495.361 | 114 |
| | Urria/*Octubre* | 433.094 | 432.990 | 104 |
| | Azaroa/*Noviembre* | 425.998 | 425.970 | 28 |
| | Abendua/*Diciembre* | 464.123 | 464.027 | 96 |
| 2001 | **Guztira / *Total*** | **6.273.513** | **6.271.738** | **1.775** |
| | Urtarrila/*Enero* | 417.455 | 417.455 | 0 |
| | Otsaila/*Febrero* | 431.787 | 431.550 | 237 |
| | Martxoa/*Marzo* | 410.936 | 410.896 | 40 |
| | Apirila/*Abril* | 506.670 | 506.579 | 91 |
| | Maiatza/*Mayo* | 538.923 | 538.631 | 292 |
| | Ekaina/*Junio* | 490.193 | 490.151 | 42 |
| | Uztaila/*Julio* | 727.561 | 727.293 | 268 |
| | Abuztua/*Agosto* | 891.833 | 891.597 | 236 |
| | Iraila/*Septiembre* | 483.262 | 483.233 | 29 |
| | Urria/*Octubre* | 451.959 | 451.791 | 168 |
| | Azaroa/*Noviembre* | 418.484 | 418.335 | 149 |
| | Abendua/*Diciembre* | 504.447 | 504.225 | 222 |
| 2002 | **Guztira / *Total*** | **6.366.924** | **6.364.427** | **2.497** |
| | Urtarrila/*Enero* | 409.785 | 409.741 | 44 |
| | Otsaila/*Febrero* | 414.969 | 414.871 | 98 |
| | Martxoa/*Marzo* | 494.996 | 494.904 | 92 |
| | Apirila/*Abril* | 499.673 | 499.387 | 286 |
| | Maiatza/*Mayo* | 508.679 | 508.614 | 65 |
| | Ekaina/*Junio* | 483.893 | 483.559 | 334 |
| | Uztaila/*Julio* | 635.689 | 635.392 | 297 |
| | Abuztua/*Agosto* | 880.529 | 880.071 | 458 |
| | Iraila/*Septiembre* | 560.934 | 560.464 | 470 |
| | Urria/*Octubre* | 506.425 | 506.300 | 125 |
| | Azaroa/*Noviembre* | 452.848 | 452.724 | 124 |
| | Abendua/*Diciembre* | 518.505 | 518.401 | 104 |

**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Airez egiten diren sarrerak ere urteko garai jakin batekin daude lotuta eta kasu honetan ere abuztuan egin dira sarrera gehienak. Hala ere, aireportuko sarrerek urte osoan izandako sarreren baitan duten pisua %14 besterik ez da izan abuztuan.

Behera egin du 2002. urtean Euskal Herrira airez iritsitako turista atzerritarren kopuruak: %12,6 gutxiago izan dira. Urte osoan egin dute behera airez egindako sarrerek, abuztuan eta urrian izan ezik. Gainera, 2002an Aste Santua beste hilabete batean izan dela ere kontuan hartu behar da (2001ean apirilean izan zen). Bestalde, Euskal Herrira errepidez iritsitako bidaiari-kopuruak gora egin du nabarmenki (+%36,2, edo 176.000 turista gehiago). Urteko hilabete guztietan egin dute gora sarrerek, azaroan izan ezik, hilabete horretan sarrera gutxiago izan baita errepidez.

*Las llegadas por aeropuerto con un perfil estacional mucho más plano, alcanzan el máximo del año también durante el mes de agosto, pero cuyo peso en el conjunto de entradas del año apenas si alcanza el 14% de los turistas de ese mes.*

*Las llegadas de turistas extranjeros por vía aérea registraron un descenso en 2002 del 12,6%, con una tónica decreciente a lo largo de todo el año sólo interrumpida en los meses de agosto y octubre, dejando a un lado el mes de marzo, con la particularidad de la Semana Santa cambiante (en 2001 tuvo lugar en abril).Por otra parte, las llegadas de turistas por carretera experimentaron un intenso crecimiento del 36,2% (176.000 turistas más) con intensos crecimientos en todos los meses del año a excepción de noviembre, con una mínima reducción de las llegadas por esta vía.*



Euskal Herria aukeratu duten turistak, garraiobidearen arabera. 2000 – 2002 urte arteko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por modo de transporte. Evolución anual 2000 - 2002*




Iturria/*Fuente:* Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Turisten hileroko bilakaera, garraiobidearen arabera. 2000-2002
*Evolución mensual de los turistas por modo de transporte. 2000 – 2002*




Iturria/*Fuente:* Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

## Bizilekua

## *Lugar de residencia*

Euskal Herria aukeratzen duten turista atzerritar gehienak frantsesak dira: 2002. urtean Euskal Herrira etorritako turista atzerritarren %40 frantsesak izan ziren (%55 errepidez iritsitakoen kasuan). Xede dugun merkatua, hots, turista atzerritarren sarrerak, dinamismo handiko merkatua da; horrela, urte arteko hazkundea %37 izan da edo, beste modu batera esanda, iaz baino 109.000 turista gehiago etorri dira aurten Euskal Herrira, eta gehienak errepidez iritsi dira.

Frantzia ondoren, Erresuma Batua eta Alemania (%9), Italia (%5,5) eta Portugal (%5,2) dira Euskal Herriak dituen merkatu garrantzitsuenak. Horrez gain, oso garrantzitsuak dira, modu berean, Europako beste hainbat herrialdeetatik aireportua erabiliz iritsitako turista atzerritarren mugimenduak, iaz izandako sarrerekiko %15eko pisua lortu delarik.

2002. urtean Euskal Herrira aireportutik egindako sarrerei dagokienez, iazko emaitzak hobetu dira Frantzia, Erresuma Batua eta Alemaniako turisten kasuan; Italiako turisten kasuan, aitzitik, gutxiago izan dira aireportutik egindako sarrerak eta azkenik ez da aldaketa handirik egon Portugalen kasuan.

*El turismo internacional con destino al País Vasco es un turismo mayoritariamente de origen francés: el 40% de los turistas extranjeros llegados durante el año 2002 fueron franceses (el 55% en el caso de las llegadas por carretera). Este mercado ha demostrado en el último año un notable dinamismo con un crecimiento en términos interanuales cercano al 37%, lo que supone más de 109.000 turistas franceses que el año anterior, en su mayor parte por carretera.*

*Por detrás de Francia los mercados más importantes son el Reino Unido y Alemania (9%), Italia (5,5%) y Portugal (5,2%). Además de estos mercados es necesario destacar la importante presencia que tienen en nuestra Comunidad tanto en carretera como en aeropuerto los turistas procedentes de otros países europeos que alcanzan un peso conjunto del 15% sobre el conjunto de llegadas del año.*

*En el caso de las llegadas por aeropuerto en el año 2002 ganan peso con respecto al año anterior Francia, Reino Unido y Alemania, mientras se reduce el número de turistas llegados desde Italia y se mantiene el de Portugal.*

Euskal Herria aukeratu duten turistak, bizilekuaren arabera. 2000-2002 urte arteko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por lugar de residencia. Evolución anual 2000 - 2002*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Gipuzkoa eta Bizkaia dira, hurrenkera horretan, urtean nazioarteko turisten fluxu handienak erakarri dituzten euskal probintziak. Turistek bisitatu dituzten udalerriei erreparatuz gero, honakoak gehien bisitatu direnak: Donostia, Bilbo, Gasteiz, Irun eta Hondarribia. Aipatu hiru lehenengoei dagokienez, begi-bistakoa da Euskal Herria aukeratzen duten turista atzerritarrek izugarri atsegin dutela hiriko eta hiri inguruetako turismoa.

*De las tres provincias vascas son, por orden de importancia, Gipuzkoa y Bizkaia las que concentran los mayores flujos turísticos internacionales del año independientemente de su procedencia. Descendiendo al nivel municipal es necesario destacar entre los municipios más visitados, independientemente de la nacionalidad, por este orden: Donostia, Bilbao, Vitoria, Irún y Hondarribia. El peso que presentan los tres primeros municipios refleja el enorme tirón que para el turismo internacional que visita el País Vasco tiene lo que podríamos denominar el turismo de ciudad y de su entorno.*

Errepidez iritsitako turisten Lurralde Historikoak, bizilekuaren arabera - 2002
*Territorios Históricos de destino de los turistas por carretera según sus lugares de residencia - 2002*

| | Guztira / *Total* | Araba / *Álava* | Gipuzkoa | Bizkaia |
|---|---|---|---|---|
| Frantzia / *Francia* | 100 % | 9,03 % | 68,24 % | 22,73 % |
| Erresuma Batua / *Reino Unido* | 100 % | 1,60 % | 70,57 % | 27,84 % |
| Alemania / *Alemania* | 100 % | 16,58 % | 62,69 % | 20,73 % |
| Italia / *Italia* | 100 % | 1,97 % | 66,05 % | 31,98 % |
| Portugal / *Portugal* | 100 % | 20,62 % | 70,43 % | 8,95 % |
| Europako gainerakoak / *Resto de Europa* | 100 % | 6,86 % | 64,87 % | 28,26 % |
| Beste herrialde batzuk / *Otros países* | 100 % | 4,46 % | 79,30 % | 16,25 % |

**Iturria*/Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Euskal Herrira iritsitako turista atzerritarren lurralde-antolamenduari dagokionez, turista frantsesak dira euskal kostaldeko udalerri guztietan eragin handien duen taldea. Gipuzkoako barrualdean eta Bizkaian ere agerpen handia dute turista frantsesek; Araban, ordea, Gasteiz da frantsesek bisitatzen duten leku bakarra. Gainerako herrialdeetako turistei dagokienez, askoz ere sakabanatuagoak dira egindako sarrerak, alemanen kasuan izan ezik. Turista horien kasuan nabarmena da gutxiago ezagutzen dutela Euskal Herria eta eremu metropolitarrak bakarrik aukeratzen dituzte.

*Al analizar la distribución territorial de los turistas internacionales que llegan al País Vasco se observa claramente como son los turistas franceses los que despliegan una mayor área de influencia que abarca todos los municipios de la costa vasca y prácticamente casi todos los municipios del interior de Gipuzkoa y Bizkaia, limitándose en la provincia de Álava a Vitoria-Gasteiz. El resto de nacionalidades, con la posible excepción de Alemania, presentan una concentración espacial mucho mayor con un área de influencia mucho menor que refleja el mayor grado de desconocimiento del País Vasco más allá de las grandes áreas metropolitanas.*



## Euskal Herria aukeratu duten turistak, bizilekuaren arabera. 2000-2002 urte arteko bilakaera
## *Municipios de destino de los turistas por carretera según sus lugares de residencia - 2002*






















**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Frantzian bizi diren turista gehienak (%42) Donostia bisitatzen dute. Ondoren Bilbo (%18), Irun (%12), Gasteiz (%8) eta Hondarribia (%4). Gainerako udalerrietan ez da %2,5 gainditu.

Turista britainiarrek Donostia aukeratu dute nagusiki (%57). Ondoren geratu dira Bilbo (%30), Hondarribia (%5) eta Irun (%4). Gainerako udalerrietan ez da %2 gainditu.

Alemanian bizi diren turista askok Donostia aukeratu dute bidaiatzeko (%35) eta ondoren Gasteiz (%16), Bilbo (%14) eta Zarautz (%12). Gutxiago dira gainerako udalerriak bisitatu dituzten turistak.

Turista italiar ugarik ere aukeratu du Donostia bidatzeko (%52) eta ondoren Bilbo (%32), Hondarribia (%6) eta Irun (%5). Gainerako udalerrietan ez da ia turista italiarrik egon.

Turista portugaldarren kasuan, askok eta askok Donostia aukeratu dute (%47) eta ondoren Gasteiz (%21) eta Bilbo (%9) izan dira gehien bisitatu dituzten lekuak.

Europako gainerako herrialdetako turisten kasuan, gehienek Donostia aukeratu dute (%43), ondoren Bilbo (%23), Gasteiz (%7) eta Irun (%6). Gainerako udalerriak ez dira apenas bisitatu.

Beste hainbat herrialdetako turisten kasuan, Donostia izan da gehien aukeratu den lekua (%68) eta ondoren geratu dira Bilbo (%13) eta Hondarribi eta Gasteiz (%5 eta %4 hurrenez hurren).

*La mayoría de los turistas que residen en Francia acuden principalmente a Donostia, siendo éstos el 42%. Como segundo destino principal de estos turistas se encuentra Bilbao (18%) seguido de Irún con un 12% de los turistas, Vitoria-Gasteiz (8%) y Hondarribia (4%). El resto de los municipios no supera el 2,5%.*

*El destino principal de los turistas británicos es principalmente Donostia (57%) seguido de Bilbao (30%), Hondarribia (5%) e Irún (4%). El resto de los municipios no supera el 2% de los turistas.*

*Los turistas que residen en Alemania tienen como destino principal de su viaje Donostia (35%), seguido de Vitoria-Gasteiz (16%), Bilbao (14%) y Zarautz (12%). En menor proporción acuden al resto de los municipios.*

*El destino de los turistas italianos es Donostia con un peso del 52%, seguido de Bilbao (32%), Hondarribia (6%) e Irún (5%). El resto de los municipios apenas reciben turistas italianos.*

*Con relación a los turistas portugueses, el destino principal de éstos es Donostia (47%) seguido de Vitoria-Gasteiz (21%) y Bilbao (9%). Con menor peso se encuentran el resto de los municipios.*

*Los turistas que residen en Resto de Europa acuden principalmente a Donostia (43%), seguido de Bilbao (23%), Vitoria-Gasteiz (7%) e Irún (6%). En menor proporción acuden al resto de los municipios.*

*Los turistas que residen en Otros Países tienen como destino principal de su viaje Donostia (68%) seguido de Bilbao (13%) y con menor peso Hondarribia y Vitoria-Gasteiz (5% y 4% respectivamente).*





## Bidatzeko arrazoia

## *Motivo del viaje*

Euskal Herria aukeratu duten turistak, bidaiatzeko arrazoiaren arabera. 2000-2002 urte arteko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por motivo del viaje. Evolución anual 2000 - 2002*




**Iturria*/Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Aisiarekin eta oporrekin erlazionatutako bidaiak oporraldiekin lotuta ageri dira nabarmenki. Uda da Euskal Herrira turista gehien etortzen den urtaroa; neguan, aitzitik, bisitari-kopuruak behera egiten du. Arrazoi pertsonalek eraginda edo senideak bisitatzera etorritako turisten kasuan ere uda izan da sarrera gehien izan duen urtaroa, bai eta abendua ere, gabon-ospakizunekin bat eginez. Horrez gain, laneko edo negozioetako bidaien kasuan, urtearen erdian behera egin dute eta gauza bera gertatu da abenduan.

*Los viajes de ocio y vacaciones son los que presentan un perfil estacional más acusado, con máximos en los meses centrales del verano y mínimos en los primeros meses del invierno. También se observan rasgos de estacionalidad en los viajes de motivación personal y de visita a familiares, con máximos en la temporada de verano y en el mes de diciembre, coincidiendo con la celebración de la navidad. Por otra parte, los viajes de trabajo y negocios tienen un perfil estacional mucho más plano e incluso descendente en los meses centrales del año y también en diciembre.*

Euskal Herria aukeratu duten turistak, bidaiatzeko arrazoiaren arabera. 2000-2002 urte arteko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por motivo del viaje. Evolución mensual 2000 - 2002*




**Iturria*/Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Euskal Herria aukeratu duten turistak, bidaiatzeko arrazoiaren arabera – Estatua - Euskal Autonomia Erkidegoa 2000-2002 alderatuta
*Turistas con destino en el País Vasco por motivo del viaje. Comparación Estado – C.A. País Vasco 2000 - 2002*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

2002. urtean Euskal Herrira etorritako bidaiariak bere osotasunean hartuta, %55en kasuan aisia edo oporrak izan ziren bidaiatzeko arrazoia. Estatu-mailan %56 da arrazoi horregatik bidaiatzen duten turisten portzentajea. Arrazoi profesionalengatik egindako bidaiek lortutako pisu erlatiboa (biltzar eta bilkuretarako bidaiak barne hartuta) %20 inguru izan zen, alegia, Estatukoaren parekoa (%19). Familiarteko arrazoiak direla eta Euskal Herria aukeratu duten turisten pisu erlatiboa %22 den bitartean, Estatuarekin alderatuta, turista-mota horren pisu erlatiboa Estatuko gainerako Autonomia Erkidegoetakoaren parekoa da. Aurreko urteko datuekin alderatuta esan daiteke arrazoi pertsonalek eragindako bidai-kopuruak (senideak eta lagunak bisitatzeko) gorakada izugarria ezagutu duela, baina arrazoi profesionalek eragindako bidaiek eta aisiarekin lotutakoek behera egin dute, bai eta beste hainbat arrazoirengatik egiten diren bidaiek ere.

Bidaiatzeko arrazoia eta sarbidea kontuan hartuta zera esan daiteke: negozioekin erlazionatutako bidaiei dagokienez, aireportuak gero eta pisu erlatibo handiago du errepidearen parean. Bestalde, gero eta gehiago erabiltzen da errepidea oporrekin eta familiarteko arrazoiekin erlazionatutako bidaien kasuan.

*La visita de los turistas extranjeros con destino al País Vasco en el año 2002 respondió en un 55% de los casos a motivos de ocio o vacacionales, un tipo de viajes que en el conjunto de España alcanza cuotas al 56%. Los viajes por motivos de índole profesional (entre los que se incluyen la visita a congresos y convenciones), tuvieron un peso aproximadamente del 20%, parecido al que este tipo de viajes tiene en el conjunto del Estado en el que su presencia ronda el 19%. El peso relativo de los turistas con destino al País Vasco por motivos familiares supone un 22% mientras que en comparación con el conjunto de España el peso relativo de este tipo de turistas es parecido en términos porcentuales a los del resto del Estado. La comparación con el año anterior evidencia un intenso crecimiento de los viajes por motivos personales (de visita a familiares y amigos) y descensos tanto de los viajes por motivos profesionales como de los viajes por ocio y otro tipo de motivos.*

*La distribución de los turistas según sus motivaciones por vías de acceso, permite comprobar el mayor peso relativo que tiene año tras año el aeropuerto frente a la carretera entre los viajes de negocios, así como la utilización más intensiva de la carretera en los viajes de tipo vacacional y entre los de tipo familiar.*

Euskal Herria aukeratu duten turistak, bidaiatzeko modua eta garraiobidearen arabera. 2000-2002 urte arteko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por motivo del viaje y modo de transporte. Evolución anual 2000 - 2002*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

2002. urtean dinamismo handia izan da errepidez egindako sarrerei dagokienez. Horrela, edozein arrazoik eragindako bidaietan errepidea izan da turistek gehienetan aukeratu duten sarbidea eta, zentzu horretan, bereziki azpimarragarria da arrazoi profesionalek eragindako bidaietan errepidearen erabilerak izandako hazkunde handia.

Haatik, gora egin du aisia eta oporrak igarotzeko Euskal Herria aukeratu eta aireportua erabiltzen duen turista-kopuruak, nahiz eta gutxiengoa izan oraindik ere. Arrazoi profesionalek eragindako bidaien kasuan ere behera egin du aireportua erabiltzen duen bisitari-kopuruak.

*El gran dinamismo de las llegadas por carretera a lo largo de 2002 se ha traducido en crecimientos de las llegadas por esta vía en todos los motivos, siendo especialmente significativo el crecimiento observado para los turistas de motivos profesionales.*

*Los turistas de ocio y vacaciones, sin embargo, han crecido por vía aérea, la menos utilizada por este colectivo, mientras que los de motivos profesionales han disminuido en aeropuertos.*



Euskal Herria aukeratu duten turistak, bidaiatzeko modua eta garraiobidearen arabera. 2000-2002 urte arteko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por motivo del viaje y modo de transporte. Evolución anual 2000 - 2002*




**Iturria*/Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Bidaiatzeko arrazoia kontuan hartuta, turistek izandako portaera aztertuz gero zera ikus daiteke: turista frantsesak dira Euskal Herria gehien bisitatzen dutenak, bidaiatzeko arrazoia edozein delarik. Aurten ere turista aleman eta italiarrek agerpen handia izan dute. Turista britainiarrei dagokienez, Euskal Herrira etortzen diren bisitari britainiar gehienak oporrak igarotzera etortzen dira, nahiz eta arrazoi profesionalek eragindako bidaiak ere egiten dituzten.

*Si analizamos el peso que tienen las distintas nacionalidades en función de las razones que motivaron el viaje, se observa como son los turistas franceses independientemente del motivo del viaje los que ostentan las mayores afluencias de turistas. Destacando un año más los turistas alemanes e italianos como aquellos entre los que tiene un mayor peso el turismo de índole profesional. Entre el turismo británico sin embargo, siendo importante el peso de los viajes profesionales, sigue siendo el turismo de ocio y vacacional el más importante.*



## Egonaldiaren iraupena

## *Duración de la estancia*

Euskal Herria bisitatzen duten turista atzerritarrek bertan egiten duten egonaldiaren iraupena aztertzeko hainbat talde bereiz daitezke: alde batetik bi gau bitartean egiten dituztenak, %50eko pisu erlatiboa dutenak, hots, Estatuan baino zazpi aldiz gehiago (Euskal Herriaren beste ezaugarri bat da hori); ondoren 3-7 gau bitartean egiten dituztenak (%29) eta azkenik 8-15 gau egiten dituztenak (%12).

Aurreko urteko datuekin alderatuz gero, iraupen laburrena duten bidaiek izan dute emaitza onena, iazko pisuarekiko zazpi puntu gora eginez. Gainerako bidaiak gutxitu egin dira, batez ere 3-7 gau bitarteko bidaiak (2001ean baino %4 gutxiago izan dira 2002an).

Bidaiarien egonaldiaren iraupena eta bidaiariek erabilitako sarbideak aztertuz gero, errepidez egindako bidaia askok eta askok, astebetetik behera iraun dute eta horien artean agerpen handia izan dute aisiarekin eta arrazoi pertsonalekin erlazionatuta egindako asteburuko bidaiek; aireportua erabili den bidaietan, 3-7 gau bitarteko iraupena duten bidaiak dira nagusi.

Joan den urteko datuekiko, hazkunde handia izan dute errepidez egindako 2 gau bitarteko bidaiek (115.000 turista gehiago), bai eta errepidez egindako astebete bitarteko bidaiek ere. Airez egindako sarreretan ez da aldaketa handiegirik nabarmendu iazko datuekiko eta 8-15 egun bitarteko bidai-kopuruak bakarrik egin du behera.

*Por lo que respecta a la duración de la estancia de los turistas extranjeros que visitan el País Vasco, se pueden establecer tres grandes grupos, los que permanecen hasta dos noches con un peso del 50%, siete veces superior al que representa este tipo de turistas en el conjunto nacional (se trata de otro de los rasgos distintivos del País Vasco), los que se quedan entre tres y siete noches (29%) y los que permanecen entre 8 y 15 días (12%).*

*En relación con el año anterior el único crecimiento lo han experimentado los viajes de más corta duración, alrededor de siete puntos porcentuales con respecto al peso que tenían un año antes, mientras que los demás viajes se han reducido, correspondiendo la bajada más significativa a los viajes de 3 a 7 noches, que en 2002 fueron casi un 4% menos que en 2001.*

*Si se analiza la duración de la estancia en relación con las vías de acceso utilizadas se observa una clara preponderancia de la carretera entre los viajes inferiores a la semana, entre los que tienen una enorme importancia los viajes de ocio y personales de fin de semana; en los desplazamientos por aeropuerto priman los viajes de entre tres y siete noches.*

*Con respecto al año anterior se observa un intenso crecimiento de los viajes hasta dos noches por carretera (más de 115.000 turistas más), así como de los de esta vía hasta una semana. Las llegadas por vía aérea han permanecido prácticamente invariables en los viajes de todas las estadías, registrándose únicamente un descenso en el tramo de 8 a 15 noches.*

Euskal Herria aukeratu duten turistak, egonaldiaren iraupenaren arabera. 2000-2002 urte arteko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por duración de la estancia. Comparación Estado – C.A. País Vasco 2000 - 2002*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Euskal Herria aukeratu duten turistak, egonaldiaren iraupenaren arabera. 2000-2002 urte arteko bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por duración de la estancia. Evolución anual 2000 - 2002*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

## Batez besteko egonaldia

## *Estancia media*

Gure Autonomia Erkidegoa bisitatzen duten turisten egonaldiak aztertuz gero, 10 gau igarotzen dituzte, batez beste, gurean, frantsesak eta portugaldarrak izan ezik. Frantsesek eta portugaldarrek astebetetik beherako egonaldiak egiten dituzte. Horrez gain, zera baiezta daiteke: urrunagoko herrialdetatik datozen turistek egonaldi luzeagoak egin dituzte 2002an, 3 aste inguruko egonaldiak hain zuzen. Kontuan hartu behar da, aipatu turistek mota orotako ostatuak erabiltzen dituztela eta ez hotelak bakarrik.

